



Norberaren deskribapena



- 11** Eneko izena eman du bertsolaritza-ikastaro batean, eta deskribapen-fitxa bat bete behar izan du. Orain, irakurri fitxa datuen bat falta den ikusteko eta egin jarduerak.

1

2

3

Aupa. Eneko Zabala naiz, 10 urte ditut eta laugarren maila egiten ari naiz Bilboko Lizardi eskolan.

Tamaina arrunta dut nire adinerako. Ez naiz ez altua, ez baxua; ez lodia, ezta argala ere. Aurpegi biribila daukat, eta begi marroitxoak. Sudur txiki biribila daukat, eta ezpain mehe-meheak. Nire ilea gaztaina-kolorekoa eta kizkurra da. Botak gustatzen zaizkit, eta, normalean, praka bakeroak eta jertse koloretsuak janzten ditut.

Mutil atsegina naiz, baina urduri samarra eta nahiko lotsatia. Gehien gustatzen zaidana lagunekin jolastea da, eta abestea ere bai. Horregatik eman dut izena ikastaro honetan.



- Lotu fitxaren atal bakoitza bere definizioarekin.

Bere izaera azaldu du.

Bere burua aurkeztu du; nor den esan du.

Itxuraz nolakoa den esan du.

- Bete honako eskema hau fitxako informazioarekin:

